# TXAKURRENTZAKO BALDINTZAK JAZZALDIAN

Txakurren presentzia JAZZALDIAn agertokiak okupatzen duen espazioari dagozkion beharrizanek eta araudi propioak baldintzatzen dute. Espazio horietako batzuk publikoak dira (hau da, Donostiako Udaleko "Animaliak babestu eta edukitzeko udal ordenantza" aplikatu behar zaie) eta beste batzuk pribatuak (non bete beharreko hainbat okupazio- eta bizikidetza-arau indarrean dauden):

- Esparru pribatuetako agertokiak: Txakurren presentzia galarazita dago erabilera anitzeko areto kultural eta esparru pribatuetan, laguntza-txakurren kasuan izan ezik, (Gida txakurrak; alerta medikokoak; gorren, autisten eta mugikortasun murriztua duten pertsonen laguntza-txakurrak, etab.) ahalmen urriko pertsonentzako laguntza-txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 LEGEAREN arabera. Beraz, oro har, txakur arrunten presentzia ez da ametituko hurrengo hauetan:

  - Kutxabank Kursaal Auditorioa (itsuaurreko txakurrarekin joateko, berariazko sarrera erosi beharko da "mugikortasun urriko pertsonentzat – 17. ilara").
  - FCC - Victoria Eugenia Antzokia
  - Škooda - San Telmo Museoa
  - Kutxa Kultur Tabakalera

- Agertoki itxi eta arautua: Espazio itxi arautuetan esparru kultural pribatuetako araudi berbera aplikatuko da, hau da, berorien barruan ez da onartuko txakurrik (laguntza-txakurrak salbuetsita).

  - Trinitate Plaza Keler

**JAZZALDIA**
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 900   prensajazz@donostia.eus
**www.jazzaldia.eus**

- **Hiriko bide publikoan dauden aire libreko agertokiak**: Udal araudiaren arabera, txakurren presentzia baimenduta dago. JAZZALDIAren kasuan, **animaliaren presentzia, kontzertuetan, higiene-, osasun- eta bizikidetza-arauen mende egongo da** (alegia, egoten utziko zaie baldin eta beren jokabideak ez badu ekitaldiaren garapen normala eragozten). Animalia lotuta eraman beharko da, eta ezingo du gorotzik ez gernurik egin ekitaldi garatzen den esparruan.

- Frigo Gunea
- Guuk Gunea

**JAZZALDIA**
Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián
**T.** (0034) 943 481 900   prensajazz@donostia.eus
**www.jazzaldia.eus**